

PRENTSAKO OHARRA

“LARS Y UNA CHICA DE VERDAD” IZENBURUKO FILM ONENARENTZAKO FANT SARIA LORTU DU SAIL OFIZIALEAN

Craig Gillespie zuzendari duen komedia dramatiko honek mutil gazte baten eta benetako pertsonatzat tratatzen duen panpina baten arteko amodio istorioa kontatzen du

Gidoia nominatuta egon zen Oscarren azken edizioan, eta “Six feet under” telesaileko lanari esker ezaguna egin den Nancy Oliver-ek idatzi du

Epaimahaiak “ezinezko istorioa sinesgarria egiten duen alegia”ren orijinaltasuna nabarmendu eta filmaren kalitate zinematografikoa eta antzezleen lan bikaina aldarrikatu ditu

Jaialdiaren Amaierako Ekitaldia bihar, 20:00etan, egingo da Capitol zine-aretoan, Jon Gaubeka antzezleak aurkeztuta

INFORMAZIO GUZTIA HEMEN : www.fantbilbao.net

INFO: 010 / 944 241 700

EGOITZAK: CAPITOL ZINEMA ARETOA (sarrera 4€)

Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren XIV. edizioko epaimahaiak sail ofizialeko film onenarentzatko FANT Saria eman dio “*Lars y una chica de verdad*” izenburua daraman Craig Gillespie zuzendari australiarrarena. Komedia dramatiko honek mutil gazte baten eta benetako pertsonatzat tratatzen duen panpina baten arteko amodio istorioa kontatzen du, eta sari andana jaso du nazioarteko hainbat jaialditan.

Filmaren gidoia, “Six feet under” telesaileko lanari esker ezaguna egin den Nancy Oliver-ek idatzi du, eta Oscarrerako nominatu zuten amerikar zine akademiak antolatutako sarien azken edizioan. Gidoia ez ezik, Estatu Batuetako kritikariek Ryan Gosling protagonistaren interpretazioa ere goraiatu dute, eta bata zein bestea, dozena bat saritarako nominatuta egon dira, *Golden Globes* eta *Satellite* sari prestigiotsuak eta antzezle, kritikari eta zine-gidoilarien elkarteek sustatutako beste golardo batzuk ere tarteko direla.

FANT Zinemaldiko epaimahaiak –Bego Vicario, Carmen Urruela eta Inés

Peña ditu epaiamahaikide- “ezinezko istorioa sinesgarria egiten duen alegia”ren orijinaltasuna nabarmendu eta filmaren kalitate zinematografikoa eta antzezleen lan bikaina aldarrikatu ditu. Horrez gain, epaimahaiak atsegina azaldu du FANTen edizio honetan lortutako kalitate artistikoagatik. Gogoan izan behar da FANTen sail ofizialean genero fantastikoak eskaintzen dituen ahalbide anitzen aukeraketa zabala ikusteko aukera egon dela, hala nola, *gorea*, izu klasikoa edo fantasia hutsa. Azken atal honen erakusgarri bikaina dugu film irabazlea.

Film onenarentzako FANT Zinemaldiko sariak 6.000 euroko diru-saria ere dakar aldean. Amaierako ekitaldia, Jon Gaubeka antzezleak aurkeztutakoa, bihar, 20:30etatik aurrera egingo da Capitol zine-aretoan, eta ekitaldi berean, edizio honetako gainerako sariak ere banatuko dira: “*El Orfanato*” filmeko soinu-banda egin duen Fernando Velázquezek eskuratuko duen talentu gazteentzako Fantrobía saria, eta animaziozko eta fikziozko film laburrentzako Nontzeflash eta Nontzefilm sariak ere bai.

Bilbon, 2008ko maiatzak 15

UDALA • AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea – Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48007 Bilbao

Tfn: 94 420 52 61 / 94 420 48 88 Faxa: 94 420 52 16 H. elek: prensa@alcaldia.bilbao.net

www.bilbao.net